

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

30/2021 Ebazpena, irailaren 9koa, Ogasuneko zuzendari nagusiarena; honen bidez publikitatea ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazio-ko Estatu Agentziari egindako kudeaketa-enkarguaren Hitzarmenari. Enkargu horren xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio jakin bat autonomia-erkidegoen, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ceuta eta Melilla hirien esku uztea.

2021eko uztailaren 30ean, Ogasuneko zuzendari nagusiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatzuz, eta Zerga Administrazio-ko Estatu Agentziako zuzendari nagusiak, eta 2021eko irailaren 1ean, Zerga Administrazio-ko Estatu Agentziaren zuzendari nagusia, hura ordezkatzuz, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazio-ko Estatu Agentziari kudeaketa-enkargua egiteko Hitzarmena sinatu zuten; enkargu horren bidez autonomia-erkidegoen, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ceuta eta Melilla hirien esku jarriko da Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio jakin bat. Oraingo honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak ezartzen duena betez, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak hitzarmen horren berri emango du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (hitzarmena ebazpen honen eranskinean ematen da).

Bilbon, 2021eko irailaren 9an.—Ogasuneko zuzendari nagusia, Iñaki Alonso Arce



**HITZARMENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ZERGA ADMINISTRAZIOKO ESTATUKO
AGENTZIARI EGINDAKO KUDEAKETA GOMENDIOARI BURUZKOA,
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN INFORMAZIO JAKIN BAT AUTONOMIA ERKIDEGOEN,
NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAREN ETA CEUTA
ETA MELILLA HIRIEN ESKU JARTZEKO
ESKU HARTZEN DUTEN ALDERDIAK**

Alde batetik, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziako zuzendari nagusi Jesús Gascón Catalán jauna, ekainaren 22ko 619/2018 Errege Dekretuaren bidez izendatua, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako presidentek 2021eko ekainaren 21(e)ko ebazpenaren bidez emandako sinadura eskuordetzan jardunez, eta Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 103.Hiru.2 artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusi Iñaki Alonso Arce jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 9ko 100/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, 2021eko ekainaren 15eko Foru Aldundiaren erabakiz hitzarmen hau sinatzeko baimena duena.

Bi alderdiek kudeaketa gomendio hau formalizatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta honako hau egiten dute:

ZIOEN AZALPENA

I

Zerga Administrazioako Estatu Agentzia (aurrerantzean, Zerga Agentzia) zuzenbide publikoko erakundea da, Estatuaren izenean eta haren kontura, estatuko eta aduanako zerga sistema eta beste administrazio eta erakunde publiko nazional batzuen edo Europar Batasuneko beste erakunde publiko batzuen baliabideak benetan aplikatzeaz arduratzen dena, baldin eta baliabide horiek kudeatzea legez edo hitzarmenez agintzen bazaio.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 1. artikulua arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga sistema osatzen duten zergak ordainarazteko, kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko, berrikusteko eta biltzeko eskumena du.

II

COVID-19ren pandemiari erantzuteko enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez (aurrerantzean, 5/2021 Errege Lege Dekretua), hainbat neurri onartu dira babes esparru indartu bat emateko, pandemiaren iraupenagatik eta eragin ekonomikoagatik ahulenak izan daitezkeen enpresak, sektoreak eta lurraldeak babesteko eta laguntzeko baliabide-bolumen handia biltzen dutenak. Xede hau izango dute: likidezia eta kaudimena sendotzea, eta estatuko ekonomiaren gainzorpetzea saihestea, ekoizpen sarea eta enplegua babesteko, inbertsioa sustatzeko eta Espainiako ekonomia jardueraren emankorra ez den balio suntsiketa saihesteko; horrek ez du eragotziko, ordea, datozen hilabeteetan enpresen eta sektoreen artean beharrezkoak diren baliabideak berriz esleitzea.

Errege Lege Dekretuak onartutako neurrien artean, I. tituluak autonomoentzako eta enpresetarako zuzeneko laguntzen COVID lerroa sortzea jasotzen du, sektore pribatuaren kaudimena laguntzeko, enpresei eta autonomoei zuzeneko laguntzak emanez.

Errege Lege Dekretuak I. artikuluan agintzen duenez, lerro horren hasieran 7.000 milioi euro izango dira, eta zenbateko hori bitan banatuko da. Lehenik eta behin, 5.000 milioi euro autonomia erkidego guztien artean (Balear Uharteetarako eta Kanarietarako izan ezik) eta Ceuta eta Melilla hirien artean banatuko dira; 2.000 milioi euroko bigarren zuzkidura, berriz, Balear Uharteetako eta Kanarietako autonomia erkidegoetan banatuko da.

Ondorio horietarako, Errege Lege Dekretuak 2.4 artikuluan zehazten du autonomia erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriak arduratuko direla dagozkien deialdiak egiteaz,



beren lurraldeetako hartzaileei zuzeneko laguntzak esleitzeko, eta beren gain hartuko dutela honako hauek ere: eskabideak izapidetzea, kudeatzea eta ebaztea, dirulaguntzak ordaintzea, ordainketak egin aurreko eta ondorengo kontrolak egitea, eta baliabide horien erabilera egokia bermatzeko behar diren jarduketak egitea, dirulaguntzei buruzko araudian jasotakoaren arabera..

Errege Lege Dekretuak 3.1 artikuluan agintzen du hautagarritasun betekizunen eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko irizpideen oinarritzko esparrua, eta laguntza horien hartzailetzat jotzen ditu laguntza ematea arautzen duen araudiak zehaztutako sektoreei atxikitako enpresaburuak edo profesionalak eta erakundeak, baldin eta Administrazioak aitortutako edo egiaztatutako urteko eragiketen bolumena, balio erantsiaren gaineko zergan edo zeharkako zerga baliokidean, 2020an %30 baino gehiago jaitsi bada 2019arekin alderatuta.

Laguntzak emateko araudian zehaztutako sektoreei atxikitako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzen duten enpresaburuak edo profesionalak ere izango dira hartzaileak.

Era berean, artikulua horretan zehazten denez, sozietateen gaineko zergan tributazio kontsolidatuaren araubidean zergak ordaintzen dituzten talde kontsolidatueta, hautagarritasun eta transferentzia baldintzak betetzearen ondorioetarako hartzailetzat joko da talde hori zergadun bakartzat, eta ez hura osatzen duten erakundeetako bakoitzarena; beraz, jardueraren beherakada zehazteko kontuan hartu beharreko eragiketa bolumena kalkulatzeko, erakundeen talde bolumen guztiak batuko dira.

Azkenik, Errege Lege Dekretuak 3.1 artikuluan argitzen duenez, ez dira hartzailetzat jotzen aurrez finkatutako betekizunak betetzen dituzten enpresaburu edo profesionalak, erakundeak eta talde kontsolidatuak, eta 2019ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitortuaren emaitza garbi negatiboa aitortu badute hura zehazteko zuzeneko zenbatespenaren metodoa aplikatutako ekonomia jarduerengatik, edo, hala badagokio, ekitaldi horretan sozietateen gaineko zerga oinarria edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga oinarria negatiboa izan bada, zerga oinarri negatiboak kapitalizatzeke eta konpentsatzeko erreserba aplikatu aurretik.

Bestalde, Errege Lege Dekretuak 3.4 artikuluan xedatzen duenez, 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan duten taldeek eta enpresaburuek, profesionalak edo erakundeek, beren ekonomia jarduera lurralde autonomiko batean baino gehiagotan edo hiri autonomo batean baino gehiagotan garatzen badute, parte hartu ahal izango dute jarduten duten lurralde guztietan egiten diren deialdietan.

I. titulua betetzeko beharrezkoak diren gaiak zehazte aldera, bereziki hautagarritasun betekizunei eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko irizpideei dagokienez, apirilaren 12ko HAC/348/2021 Agindua onartu da, autonomoei eta enpresei zuzeneko laguntzak esleitzeko irizpideak zehazten dituena, martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuak I. tituluan xedatutakoa aplikatuz. Titulu hori COVID-19ren pandemiari erantzuteko enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzkoa da (aurrerantzean, HAC/348/2021 Agindua).

Agindu honek, lehenengo idatz zatiko 8. puntuan, honako hau argitzen du: informazio trukeetarako, Errege Dekretuak 3.2.b) artikuluan aipatzen duen langile kopurua kalkulatzeko, kontuan hartuko da hileko edo hiruhileko aitortuaren kontsignatutako laneko diru etekinen jasotzaileen 2020ko batez besteko kopurua, atxikipenei eta konturako diru-sarrei buruzkoa (111 eredu).

Halaber, zehazten du Errege Lege Dekretuak 3.4 artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko laguntza eskatzaileek jarduten duten lurraldeen arteko eragiketa bolumenaren beherakadaren banaketa, honela egingo dela: atxikipenen eta konturako diru-sarriaren urteko laburpenaren informazio aitortuaren kontsignatutako norik bere lanaren ordainsarrietan oinarrituz, hartzaileen bizilekuaren arabera.

Horrez gain, aginduak 1. idatz zatiko 9. puntuan ezartzen duenez, foru araudia betetzen denean, 5/2021 Errege Lege Dekretuak I. tituluan estatuko erregulazioaren zerga kontzeptuei egindako erreferentziak foru araudiaren pareko kontzeptuei egindakotzat



joko dira. Eta eransten du, bereziki, Errege Lege Dekretu horrek I. tituluan araututako laguntzen eskatzaileei, foru lurraldean balio erantsiaren gaineko zergan araubide sinplifikatua aplikatzen badute, errege lege-dekretuaren 3.2.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaiela, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aplikatzen duten tributazio araubidea edozein dela ere.

III

5/2021 Errege Lege Dekretuak 3. artikuluan ezarritakoa betetzeko, autonomia erkidegoek, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriek Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko informazio jakin bat behar dute. 5/2021 Errege Lege Dekretuak berariaz jasotzen du beharrezkoa den informazio jakin bat dagokion zerga administrazioak eman behar duela, autonomia erkidegoek, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriek eskatuta.

Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 94.1 artikuluko d) eta l) letrek ezartzen duenez, zerga administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak badira ere, horiek laga daitezke, besteak beste, honako egoera hauetan: lagapen horren xedea administrazio publikoekin lankidetzan aritzea bada, funts publikoen kontura laguntzak edo dirulaguntzak lortzean edo jasotzean gertatzen den iruzurraren aurka borrokatzeko, edo, bigarren kasu horretan, haien eginkizunak betetzeko, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

Zerga Agentziaren, autonomia erkidegoen, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ceuta eta Melilla hirien artean zerga informazioa jakinarazteko ohiko bideak daudenez, eta, bereziki, 5/2021 Errege Lege Dekretuak 3. artikuluan ezarritakoa betetzeko, laguntza horien izapidetzea errazteko, alderdi guztiek uste dute arinagoa eta eraginkorragoa dela Bizkaiko Zerga Agentziak berak tratatzea eta autonomia erkidegoei, Nafarroako Foru Erkidegoari, Ceuta eta Melillako hiriei helaraztea —haiek eskatuta—, laguntzak izapidetzeko behar dituzten Bizkaiko Foru Aldundiko titulartasuneko zerga informazioa.

Hori guztia aintzat hartuta, ezinbestekotzat jotzen da hitzarmen hau izenpetzea. Haren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Agentziari gomendatzen dio bere titulartasuneko informazio jakin bat tratatzeko eta eskuragarri jartzeko autonomia-erkidegoei, Nafarroako Foru Komunitateari eta Ceuta eta Melilla hiriei, haiek hala eskatuta, 5/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako laguntzaren kudeaketa errazte aldera.

Horregatik guztiagatik, alderdiek adierazten dute hitzarmen hau formalizatu nahi dutela, honako hauek betez:

KLAUSULAK

Lehenengoa. — Xedea

Hitzarmen honen xedea da, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa gomendioa Zerga Agentziari ematea, autonomoei eta enpresei zuzeneko laguntzak izapidetzeko behar duten Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko zerga informazioa tratatzeko eta autonomia erkidegoen, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ceuta eta Melilla hirien esku jartzeko, haiek eskatuta (laguntza horiek 5/2021 Errege Lege Dekretuak I. tituluan arautzen ditu); bestetik, gomendio horren ondoriozko informazio trukeek bete behar dituzten baldintzen eta prozeduren esparru orokorra ezartzea.

Zehazki:

1. Zerga Agentziak autonomia erkidegoen, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ceuta eta Melilla hirien esku jarriko du informazio jakin bat, aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Agentziari emandakoa, hautagarritasun betekizunen oinarritzko esparruari eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko irizpideei buruzkoa (5/2021 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluekin eta HAC/348/2021 Aginduaren 3. artikuluekin bat etorriz,) eta autonomia erkidegoetan, Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ceuta edo Melilla hirietan eskatutako laguntzei buruzkoa, baldin eta behar



den informazioa dagokion zerga administrazioetik jasotzeko baimena eman badute. Eskura jarriko den informazio hori honako hau da, hain zuzen:

- a) Zerga kontsolidazioko talde bateko kide diren erakundeetan, edo 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan duten erakundeetan, baldin eta foru lurraldean soilik tribututzen badute sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako, eta lurralde erkidean jarduten badute:
 - (i) Ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafeak adieraztea. Epigrafe horietan sailkatzen da eskatzaileak 2019, 2020 eta 2021ean egindako jarduera, eta, hala badagokio, jarduera nagusia aipatzen da.
 - (ii) Eskatzailea talde bateko kide bada, 2019ko eta 2020ko osaerari buruzko informazioa.
- b) Zerga kontsolidazioko talde bateko kide diren erakundeetan, edo 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan duten erakundeetan, baldin eta foru lurraldean soilik tribututzen badute BEZaren ondorioetarako, eta lurralde erkidean jarduten badute, eragiketen bolumen hori emango da 2019ko eta 2020ko balio erantsiaren gaineko zergan.
- c) Zerga kontsolidazioko talde bateko kide diren erakundeak badira, edo 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan duten enpresaburuak, profesionalak edo erakundeak badira, eta beren ekonomia jarduera lurralde autonomiko batean baino gehiagotan edo Ceuta edo Melilla hirian gauzatzen badute, 2020an ordaindutako nor bere laneko ordainsariak; hori egingo da atxikipenen eta konturako diru-sarrereren norberaren lanaren konturako atxikipenen eta diru-sarrereren urteko laburpenaren informazio aitortuenean jasotako informazioaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutakoa, hartzaileen bizilekuari erreparatuz.
- d) 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 3.2.b) artikulua aplikatu behar zaien enpresaburuak, profesionalak, erakundeak edo establezimendu iraunkorrak badira, Foru Ogasunean aurkeztutako hileko eta hiruhileko aitortuenean (atxikipenei eta konturako diru-sarrerei buruzkoa) kontsignatutako lanaren diruzko etekinen hartzaileen 2020ko batez besteko kopurua (110 edo 111 ereduak).
- e) Zerga kontsolidazioko taldeetan eta erakundeetan, 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan badute eta foru lurraldean soilik tribututzen badute sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako eta lurralde erkidean jarduten badute, honako informazio hau: sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorra duten ez egoiliarren errentaren gaineko zerga oinarria negatiboa den 2019ko ekitaldiko aitortuenean, konpentsazioak eta erreserbak egin aurretik.
- f) Ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafeetan sailkatzen da eskatzaileen jarduera ekonomikoa.

2. Zerga Agentziak autonomia erkidegoen, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ceuta eta Melilla hirien esku jarriko du informazio jakin bat, aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Agentziari emandakoa, hautagarritasun betekizunen oinarritzko esparruari eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko irizpideei buruzkoa, zergak foru lurraldean ordaintzen dituztenak, baldin eta hark ezin izan badu egiaztatu 5/2021 Errege Lege Dekretuak laugarren xedapen gehigarriaren 2. idatz zatiko a) eta b) letretan agindutakoa. Eskura jarritako informazio hori honako hau da, hain zuzen ere:

- a) 2021ean eta 2022an zehar eskatzaileak egindako dibidenduen banaketari buruzko informazioa.
- b) Eskatzailearen ekonomia jarduera 2022ko ekainaren 30era arte mantentzeari buruzko informazioa. Jarduera hori sailkatuko den ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafeak adieraziko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan aurkeztutako eskaeretan, Zerga Agentziak ez badu 5/2021 Errege Lege Dekretua aplikatzeko eskatzaileei



buruzko behar den informaziorik, inguruabar hori jakinarazi ahal izango die eskatzaileei, Bizkaiko Foru Aldundiari zuzenean eskatu ahal izan diezaioten informazioa.

Aurreko idatz zatietan xedatutakoa bete ahalko da Bizkaiko Foru Aldundiak 5/2021 Errege Lege Dekretuan agindutakoari buruz Zerga Agentziari eman diezaiokkeen informazioa alde batera utzi gabe, autonomia erkidegoen, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ceuta eta Melilla hirien esku jartzeko, baldin eta informazio hori interesdun askori buruzkoa ez bada.

Bigarrena.— Informazio lagapenaren helburua

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informazioa lagatzearen helburu bakarra izango da lankidetzan aritzea beste autonomia erkidego batzuekin, Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin, hautagarritasun baldintzak eta eskakizunak egiaztatzeko, bai eta 5/2021 Errege Lege Dekretuak onartutako COVID lerroko auto-nomoentzako edo enpresetarako zuzeneko laguntzen zenbatekoa finkatzeko irizpideak egiaztatzeko ere.

Hirugarrena.— Emandako datuen izaera

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zerga datuak zergadunek adierazitakoak dira, eta, oro har, ez da inolako egiaztapen jarduerarik egin automatizatu aurretik. Nolanahi ere, datu horiek Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu baditu, datu horiek emango dira.

Laugarrena.— Informazioa trukatzeko prozedura

Zerga Agentziak, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuak tratatzeko arduradun izanik, fitxategi bat sortuko du autonomia erkidego, Nafarroako Foru Erkidego edo Hiri bakoitzari dagokion erakunde eskatzaileei buruzko informazioarekin, eta haien esku jarriko du, 5/2021 Errege Lege Dekretuaren I. titulua betez hark eman behar dien Zerga Agentziaren titulartasuneko informazioarekin batera.

Horretarako, aurrez, Zerga Agentziak Foru Aldundiari fitxategi bat bidaliko dio, autonomia erkidego, foru erkidego edo hiri bakoitzean laguntza eskatzen dutenen identifikazioa jasotzen duena, Foru Aldundiaren informazioa jaso behar bada.

Bosgarrena.— Titulartasuna

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) 11.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, kudeaketa gomendioak ez dakar Bizkaiko Foru Aldundiari esleitutako eskumenen titulartasuna edo eskumen horiek baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea.

Seigarrena.— Datu pertsonalen tratamendua

Zerga Agentziak adierazten du betetzen dela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak 28.3 artikuluan xedatutakoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, honako hauei dagokienez: hautagarritasun baldintzen eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko irizpideen oinarriko esparruari buruzko informazioa jasotzen duten erakunde lagapen hartzaileak, 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluekin eta apirilaren 12ko HAC/348/2021 Aginduarekin bat etorritz.

Zerga Agentziak datuak tratatzeko arduradunaren argibideen arabera eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek 28.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Hala, mandatu horri lotuta hitzarmen honetan jasotako helburuetarako baino ez dira aplikatuko. Zehazki, informazioa tratatzeko orduan, Segurtasun Eskema Nazionalean jasotako segurtasun neurriak hartuko dira, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Erregelamendu Orokorren abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako balditzetan.



Zehazki, Zerga Agentziak:

- Bermatzen du bere azpiegitura Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean jasotako betekizunei egokitzea.
- Ezingo die beste batzuei igorri edo laga, lagatzaileak lagapen hartzaileari emandako informazioa, azken horren baimena izanda ere.
- Finkatuko ditu, lagatzaile eta lagapen hartzaile baten arteko informazio-emate bakoitzari buruz gordetako datuak lagatzailea ez den beste batzuek eskuratu ahal ez izateko kontrolak.
- Datuen gainean egindako edozein tratamenduren trazabilitatea ikuskatzeko behar den informazioa gordeko du, eta egindako eragiketen sekuentzia errepikatzeko aukera emango du.
- Informazioa eskuratzeko aukera ematen duten baliabideak kolokan jarri ahal izan dituen gorabeheraren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi beharko dio erakunde lagapen-hartzaileari, Bizkaiko Foru Aldundiari horren berri eman diezaion eta dagozkion neurriak hartu ditzan.
- Lagapen hartzaileari berehala jakinarazi beharko dio bere azpiegituren bidez lagatako datuetan eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri, dagozkion neurriak hartu ditzaten eta Bizkaiko Foru Aldundiak horren berri izan dezan.

Zazpigarrena. — Emandako datuen kontrola eta segurtasuna

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuen kontrola eta segurtasuna, bereziki informazioa lagatzen duen erakundeak kontrolatzeari dagokionez, arautuko da Ogasun Ministerioaren, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren, autonomia erkidegoaren, eta Nafarroako Foru Erkidegoaren/Hiriaren arteko hitzarmenaren bederatzigarren klausularen arabera, martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuak, COVID-19ren pandemiari erantzuteko enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzkoak, 4.4 artikuluan agindutakoa betez.

Zortzigarrena. — Finantzaketa

Hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzearen eta garatzearen ondorioz, sinatzaileetako batek ere ez du bere gain hartzen konpromiso ekonomiko ohikoen eta ezohikoen betebeharririk.

Bederatzigarrena. — Indarraldia

Gomendio hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta ondorioak izango ditu beharrezkoa denean COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretua betearazteko (gehienez ere, lau urte).

Hamargarrena. — Publizitatea

Hitzarmen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaikoan argitaratuko da, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) 11.3 artikuluan ezarritakoa betez.

Hamaikagarrena. — Suntsiarazpena

Alderdietako batek gomendio honen klausularen bat betetzen ez badu, suntsiarazi egingo da, hurrengo paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzi gabe.

Halaber, azkentzeko arrazoiak izango dira xedea betetzea, ezinbesteko kasua, elkarren arteko adostasuna eta adierazitako jarduerak behingoan bete ezin izatea.

Alderdi batek ez betetzeagatik suntsiarazten bada, eta beste aldeak alde zuzenetik amaiera iragartzen bada, hilabete lehenago, abian diren jarduketak egingo dira, eta ez da besterik abiaraziko hitzarmena salatzen den egunetik aurrera.

**Hamabigarrena. — Izaera eta jurisdikzio eskuduna**

Kudeaketa gomendioaren hitzarmen honek administrazio izaera du, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) 11. artikuluan adierazitakoa aplikatuko zaio.

Hitzarmen honen interpretazioari, aldaketari, ondorioei edo ebazpenari lotuta alderdien artean sortu daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura-pekoak eta eskumenekoak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Dokumentu hau irakurri dute bi alderdiek, eta ados daudela ikusita, elektronikoki sinatzen dute.

Zerga Administrazioko Estatuko Agentziako zuzendaria, Jesús Gascón Catalán. — Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusia, Iñaki Alonso Arce